

Austin, P. eta Sallabank, J. (edk.) *The Cambridge Handbook of Endangered Languages*

Beñat Garaio

Soziolinguistika ikerlaria

benat.garaio@gmail.com

Sarrera-data: 2016-07-14 | Onartze-data: 2016-08-12

Hizkuntza gutxituek gero eta interes gehiago bereganatzen dute eta apurka-apurka mundu akademikoan badirudi bere tokitxo egin dutela, baita printzipioz hizkuntza gutxiturik ez dagoen tokietan ere. Horregatik, Cambridge University Press argitaletxe erraldoiak lan hau hartu izana aipatzeko da, ikusiko den bezala ez baita lan makala izan liburu hau argitaratzea.

Eskuliburu hau Cambridge University Press eta Londreseko SOAS unibertsitateko Hans Rausing Endangered Language Program (HRELP izenez ezagutua) egitasmo pribatu-publikoaren artean bultzatua izan da, baina azken honek duen garrantzia begi bistakoa da, bi egileak programa horretako zuzendaria baitira eta ahal izan duten guztietan

HRELP-i buruzko aipamenak egin dituztelako.

Liburua bi editoreen sarrera indartsu batekin hasten da, non hainbat gai jorratzen dituen, tartean, gerora agertzen ez diren batzuk, adibidez, hizkuntza eskubideak, elebakar boteresuen hizkuntza ideologiak eta globalizazioa.

Liburuak 580 orrialde ditu eta lau zatitan banatzen da: lehenengo atalean “Arriskuan dauden hizkuntzak” aztertzen ditu, besteak beste, hizkuntza-ekologia, hiztun-komunitatea, hizkuntzen arteko kontaktua, hizkuntza eta kultura eta hizkuntza eta gizartea gaietara pasarte bana eskainiz. Bigarren atalean hizkuntzen dokumentazioaren inguruko gaiak jorratzen ditu, esaterako, hiztunen ardura

dokumentazioan, artxibistika eta teknologia berriek eskainitako aukerak dokumentazioan. Hirugarren atalean, aldiz, desagertzeko arriskuari eman zaizkion erantzunak aztertu dira, hala nola, hizkuntza politika, lexikografia, hezkuntza, teknologia berriak eta ortografiaren ikuspegitik. Bukatzeko, laugarren zatian “Erronkak” dira gai nagusia eta hemen artikulua anitzak daude, zehatzago esanda, ekonomiaren garrantzia hizkuntza-komunitate baten biziraupenean, ikerlarien entrenamendua, gizarte moderno batean hizkuntzek beregain hartu ditzaketaren rol berriak eta dokumentazio egitasmo baten balizko plangintza.

23 pasarteetan izen handiak daude, hala nola, Lenore Grenoble, Colette Grinevald, Lyle Campbell, Bernard Spolsky, Leanne Hinton, Friederike Lüpke, Serafin Coronel-Molina eta Teresa McCarty.

Ezin ukatu sakontasunez eta asmo handiekin egindako liburua dela, baina hainbat gabezia ditu, ez bairik gabe.

Egiari zor, hainbat gai sakontasunez jorratu gabe daude, adibidez, hizkuntza eskubideak, globalizazioa, gatazkak eta inperialismoa. Ikusita gaien aukeraketa oso ezberdina izan dela, zergatik landu dira gai batzuk eta beste batzuk, bitartean, ez? Antza denez (J. Sallabank, komunikazio pertsonala), bi editoreek sartu nahi zituzten gaiak erabaki zituzten lehena, eta gero, gai hori zein egilek landuko zuen. Ulertzekoa denez eta beste eskuliburu osaketan gertatzen den antzera, batzuetan ez zuten beraien helburua bete eta bai gaia, eta baita egilea ere hasierako asmoengandik urrundu egin zitzairen.

Gaiei gagozkionez, aipatu behar da batzuetan artikuluetan azaldutako edukiak egile batek baino gehiagok jorratzen dituela, esaterako, “Language planning and policy”, “Language and society” eta “Curriculum design”.

Agian euskal hiztun komunitatearen edo gure egoera antzekoan dagoen beste edozein komunitateren iritzian liburu honek duen beste gabezi bat hizkuntzen dokumentazioak duen garrantzia, gure kezketatik urrun dagoen alorra. Hala ere, arriskuan dauden hizkuntzekin (*endangered languages*, hizkuntza gutxituak beharrez) diharduten egitasmo eta akademiko gehienek hizkuntzen dokumentazioa nahiago dute, hizkuntzen biziberritzea *per se* bera baino. Horrenbestez, ikusita bi ezagutza-adar hauen arteko nahasketa ‘arbitrariora’ egiten dela liburu honetan, “The Cambridge Handbook of Language Documentation” eta “The Cambridge Handbook of Language Revitalization” liburu bana egin zezaketen, irakurleak eskertu egingo baitzuen, hainbat arrazoirengatik.

Izan ere, 580 orrialde asko dira modu esanguratsuan irakurri eta edukiak barneratzeko, eta askotan, irakurketa bera astunegia egiten da. Ez du batere laguntzen, hein handi batean, artikulua guztiek dituzten hitz mordoa eta edukiak hobeto ulertarazten lagunduko luketaren irudi, taula eta grafikoaren eskasia. Hala ere, pasarte bakoitzak luzera ezberdina du eta horrek ere ulermena eta irakurtzeko erritmoa zailtzen dute. Esaterako, “Teknologia berriek dokumentazioan izan dezaketaren eragina” artikulua 31 orrialde ditu, eta aldiz, “Arriskuan dauden hizkuntzen aukera berriak” pasarteak, 14 orrialde. Kasualitatea edo ez, dokumentazioarekin zerikusia duten artikulua dira luzeenak.

Hasieran esan den legez, sona handiko egileek hartu dute parte liburu honetan, baina hizkuntza gutxituen esparruan erreferentzia diren beste batzuk falta dira, adibidez, Blommaert, Skutnabb-Kangas, May, Kaplan eta Baldauf eta Dorian. Gainera, eta harritzekoa denez, Peter Austin-ek berak ere ez du idazten, hizkuntzen dokumentazio mailan mundu mailako erreferentzia izanik.

Edonola ere, aipagarria da hizkuntza gutxietako hiztunek ez dutela tokirik liburu honetan, ekarpen oso interesgarriak egin ditzaketen arren. Izan ere, egile hauek aipatzen dituzten hizkuntzetan nork jakingo du barru-barrutik zer gertatzen den? Ez da esan nahi hiztunen testigantzak jasotzen dituen liburu bat egin behar zutenik, adibidez, Hinton-en *“Bringing our Languages Home”* saiakera otzanaren antzera, baina ikerlari andana daude beraien komunitateetan lan aparta egiten.

Hori gutxi balitz, liburuan 17. orrialdean aipatzen duten egoera tipiko salagarria betetzen dute beraiek ere liburu honetan hein batean, hau da, pertsona zuriak beraienak ez diren hizkuntzak kodifikatzen dituztela.

Honen harira, esan behar da, bai onerako eta bai txarrerako ere, oso liburu teorikoa dela eta mundu mailan gertatzen diren prozesu gutxi aztertzen direla. Seguruenik eskuliburu hau arriskuan dauden hizkuntzen gai honetan jantzi nahi dutenentzako dago

pentsatua, baina kasu konkrituak jorratu izanak beste kutsu bat emango lioke eskuliburu honi.

Baina esan den bezala, pasarte asko daude liburu honetan eta horietako askok merezi dute zehatzago aztertu ahal izateko iruzkinen bat.

Hasteko, *“Language ecology”*-ren pasarte oso oinarrizkoa da, baina edozein ikerlari edo irakurlerentzako datu interesgarriak ditu, hizkuntzen galeren faktoreak azaltzen ditu eta HINBE motak (Fishman-ek proposatutako biziberritze pausuak, alegia) nolakoak diren deskribatzen ditu, besteak beste.

Bestalde, *“Speakers and communities”* atala, nahiz eta interesgarria den bien arteko harremana aztertzea, agian ez zen 22 orrialde emateko adina interesgarria.

Hirugarrenik, *“Survey of endangered language situations around the world”* kapitulua interesgarria da, hizkuntza zenbaitek duten egoera ezberdina aztertzen baita, baina oso gauza zehatzetan gelditzen da. Hori bai, *“case study”*-a duen bakarrenetarikoa da kapitulu hau.

“Language and culture” atalak ikuspegi antropologikoa dauka, eta eskertzen da hizkuntza gutxituen biziberritzea hainbat diziplinatik begiratu behar delako, baina antropologian formakuntzarik ez duen batentzako teknikoegia suerta daiteke.

Ondoren, *“Speakers and language documentation”* mendebaldekoan uste askori egiten dio aurre eta hori bereziki erabilgarria da ikerlari askorentzat, gure mundu ikuskera ikertzeraz goazen komunitateari inposatzen baitiogu.

“*Language planning and policy*” da, beharbada, pasarte argigarri eta irakurterazena, era zuzen eta simple batean jorratzen baititu hizkuntza-politikarekin zerikusia duten gaiak. Eskola bat eman liteke artikulua honetako edukia erabiliz.

Honetaz gain, “*Revitalising languages-ek*” hizkuntzen irakaskuntzan du jarria arreta nabarmenena (baita teknologia berriak lantzen dituen artikulua ere), baina euskara bezalako hizkuntzek fase hori ‘gainditua’ dute eta agian horregatik sartu zuten “*New roles*” artikulua, gurea bezalako hizkuntza batentzako erabilgarriena den artikulua.

Era berean, “*Economic aspects*” artikulua ere oso interesgarria da, hizkuntzen osasunean aspektu ekonomikoek eta politikoek izugarritzko eragina baitute. Dena den, François Grin-en ekarpenak jaso ez izana kamusgarria da, egile honek hizkuntza politiken gastuak eta onurak sistematikoki aztertzen baititu.

Bukatzeko, eta lehen aipatu dugun dokumentazioa vs biziberritzea talkaren harira, “*Researcher training in language documentation*” izeneko artikulua bat dago liburu honetan, baina zergatik ez “*language activist training*” edo “*revitalisation researcher training*” gaitzat hartuko zituen artikulua? Ziur Susan Penfield bezalako egile batek liburuari ekarpen mardula egingo ziokeela.

Kritika honekin amaitu aurretik, eta euskal hizkuntza gutxituaren komunitatea osatzen dugunez, liburu honetan geure kasua zenbat aldiz eta nola azaldu den ikusi nahi izan da. Hau honela, Grenoblek hizkuntza-ekologiari buruzko pasartean lerroalde batzuetan aipatzen du, soziolinguistika azaltzean Spolsky-k euskarak muga bi aldeetan duen tokia aipatzen

du, beste hainbeste gutxitzearen aspektu ekonomikoak aztertzen dituen artikulua (EAE-ren autonomia fiskala aipatuz) eta hizkuntza gutxituen egitasmo eta aukera berriek ETB1en ardura normalizatzailea azpimarratzen duenean. Edonola ere, interesgarria zatekeen “Hizkuntzaren kurrikulumaren osaketa” artikuluan ikastolak eta hezkuntza-ereduak aztertu izana, edota Sallabank-en hizkuntza politikaren analisian Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren jarduna gehiago behatu izana.

Ondorio gisa, esan behar da gai interesgarri asko eta eduki mordoak jorratzen direla liburu honetan (baita hizkuntza purismoa ere, adibidez) eta begi bistan da sekulako lana izango zela horrelako egitasmo bat aurrera ateratzea. Izan ere, liburu honek dituen gabezi asko hortik datoz, egitasmo honen konplexutasunik. Hutsune hauek, labur-labur, honako hauek dira: behin baino gehiagotan errepikatzen diren edukiak, ikuspegi praktikoa falta, batzuetan gaien aukeraketari darion kohesio falta, gai batzuk kanpoan utzi izana (hizkuntza ukipena edo aktibismoa, esaterako), mendebaldeko egileak direla nagusi idazleen artean, eta gure kasuan, hizkuntza dokumentazioari ematen zaion garrantzia, hizkuntzen biziberritzearen kaltetan.

Dena den, liburu hau irakurtzeko denbora eta aukera duenak arriskuan dauden hizkuntzen ideia orokor bat jasoko du, baita hainbat kontzeptu tekniko barneratzeko abagunea ere. Seguruenik, zaila egingo zaio denbora luzez jarraian irakurtzea eta ez du kasu praktikorik sakontasunez ezagutuko, baina eskuliburua den heinean, gainera irakurtzeko eta norbere ezagutza teorikoak sendotzeko gomendagarria da *otzanaren* hau. ●